

167. FITXA Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, toki-entitate eskudunak eta udal-liburutegi publikoen arloko zereginak esleituak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-entitateak.

Sarbide-esteka: [Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko dirulaguntzak 2025 - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko uztailaren 29koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko eta garatzeko dirulaguntzen oinarriak, eta laguntza horien deialdia iragartzen baita](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 300.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/03

Laburpena

Deialdi honek **Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan 2025erako teknologia berriak ezartzeko eta garatzeko** dirulaguntzak arautzen ditu.

Udalerri bakoitzean onuradun bakarra egon daiteke; beraz, eskaera bat baino gehiago dituzten udalerrietan, lehentasuna izango du udalak, gainerako erakunde eskatzaileen aurretik.

Eskatzaile bat baino gehiago badago, eta horietako bat ere ez bada udala, liburutegi gehien kudeatzen dituen erakundeak izango du lehentasuna. Azken kasu horretan, erakunde eskatzaileek liburutegi kopuru bera kudeatzen badute, lehentasuna izango du liburutegi-funts gehien duenak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahal izango dira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko eta garatzeko elementuak jartzeko edo eskuratzeko 2025eko ekitaldian egiten diren jarduera

bereziak, baldin eta 100 eurotik gorako kostua badute.

Zehazki, hauek eskuratzeko edo instalatzeko emango da laguntza:

- a) **Hardwarea edo euskarri fisikoa.** Ordenagailuak eta haren osagaiak sartzen dira multzo honetan, bai eta funtzionamendurako edo erabilerarako beharrezko den beste edozein elementu material ere, dela modu autonomoan lanean dihardutela, dela sarean dihardutela (mahaigaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, pdak, eskanerrak, pantaila lauak, periferikoak, routerrak, biltegitratze-unitateak, txartel grafikoak, saguak, aurikularrak, inprimagailuak, liburu irakurgailu elektronikoak, tabletak eta abar). Diruz laguntzeko modukotzat joko dira liburutegiak Interneten egoteko eta behar bezala funtzionatzeko funtsezkoak diren elementuak.
- b) **Softwarea edo informatika-sistemen euskarri logikoa.** Alegia, halako ataza zehatz bat egiteko beharrezkoak diren programa eta prozeduren multzoa. Horretarako, atal honetan sartzen dira liburutegi-kudeaketarako sistemak ez diren sistemen softwarea eta aplikazioen softwarea.
- c) **Telekomunikazioak.** Komunikazio-sareak instalatzea, bai hari bidezkoak bai haririk gabekoak.

Laguntzen zenbatekoa

Jasotako dirulaguntzak ez du gaitutuko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak diruz lagundu dezakeen aurrekontuaren % 90, eta ez da inolaz ere **100.000 eurotik** gorakoa izango entitate onuradun bakoitzeko.